

**96. zk.**  
2000ko abendua



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

Franko itundua 48/27



# Mendian gora arabarrak





**EUSKHARAN KULTUR ELKARTEA**  
(AMAIA ZENTROAN) Benito Pz. Galdos, z/g  
TL. 945 28 82 75

## EUSKARAREKIN JO TA KE

### • TAILERRAK EUSKARAZ 2000-2001

#### • Matrikula epe berri bat ireki da, MINTZA-PRAKTIKA (Berbetan):

Helduak (5.urratsetik aurrera)

URTARRILA-OTSAILA-MARTXOA (2001)

Astearte eta ostegunetan (TXANDAK: 10:00-11:30/15:30-17:00/19:00-20:30/20:00-21:30)

#### Informazioa eta matrikula

Interesatuta zaudetenok, fitxa eta kuxaren justifikantea, Amaia zentrorera eraman. Astelehena eta asteartean, 20,00etatik 21,30etara.

#### Matrikula:

Hiru hilabete 3.000 pta. Eta Euskharan Kultur Elkartearen Kontu Korrontean sartu behar dituzue: Euskadiko Kutxa: 3035 0073 51 0730024060

### BIDEO EMANALDIAK

Euskaraz mintzatzeko beste aukera bat

Asteazkenero 20:30etatik 21:30etara

Sarrera dohainik

### Bertsolaritza:

Ostiraletan 18:15etatik 19:45etara.

### BIDAIAK EUSKARAZ

- Mintza-praktika

Euskharan elkarteak Euskal Herriko herri eskaldunetara irteerak antolatu ditu hilabetero azken larunbatetan.

Autobusa ordaintzeko 1.500 pta. eta janaria eramanez Euskal Herriko herri bat ezagutu eta egun eskaldun bat bizi dezakezu.

Irteera, goizeko 10:00etan izango da Las Nieveseko Elizatik, (puntuale gainera) eta itzulera 21:00etan.

- Abenduaren 16an- Dimara (Bizkaia)
- Urtarrilaren 27an- Aramaionara (Araba)
- Otsailaren 29an- Sarara (Lapurdi)

5.urratsa beharrezkoa da gutxienez (plaza mugatuak daude)

### TXANGO MAJIKOA ARANBIZKARRAKO PARKETIK OLENTZEROREN ESKUTIK:

Olentzero, Lamiak, Galtzagorriak, Basajaunak, Mari, Akerbeltz...

Abenduaren 24ean arratsaldeko 5etan, AMAIA zentroan, gero Aranbizkarrako parkera joateko.

### • FORMAKUNTZA IKASTAROAK: INFORMATIKA. urtarrila

Ostirala eta larunbatetan 11,00etik 14,00etara • Asteazkenetan 19:00etatik 21:30etara. • 5000 ikastaro bakoitza

#### OINARRIZKO INFORMATIKA

IKASTAROA	ORDU KOPURUA	EZAGUPEN MAILA
WINDOWS 98	20	HUTSA
OFFICE 2000	GUZTIRA 60	WINDOWS 9X
-WORD	20	
-EXCEL	20	
-ACCES	20	
INTERNET	GUZTIRA 35	WINDOWS 9X
-WWW	20	
-POSTA-E	5	
-NEWS	5	
-TXAT	5	

#### INFORMATIKA AURRERATUA

IKASTAROA	ORDU KOPURUA	EZAGUPEN MAILA
PHOTOSHOP 5.5	20	WINDOWS 9X
(HASTAPENAK)		
PHOTOSHOP 5.5	20	PHOTOSHOP 5.5
(SAKONTZEA)		(HASTAPENAK)
FREEHAND 9	20	WINDOWS 9X
DREAMWEAVER 3.01	20	PHOTOSHOP 5.5
		(SAKONTZEA)
		FREEHAND 9
FLASH 4	20	DREAMWEAVER 3.01

OHARRAK:- IKASTARO GUZTIAK EUSKARAZ IZANGO DIRA.

- ZENBAIT IKASTAROK EZAGUPEN MAILA ESKATZEN DUTE, HOTS, IKASTARO HAUETAN APUNTATZEKO LEHENENGOZ AIPATUTAKO EZAGUPEN MAILAKO IKASTAROA EGINDA BEHARKO DUZU.

- WINDOWS 98, OFFICE 2000 ETA INTERNET IKASTAROETAN, ESKULIBURUAK ETA PROGRAMAK EUSKARAZ IZANGO DIRA; GAINONTZEKOETAN GAZTELANIAZ (EUSKARAZ EZBAITAUDE)


“zure diskoa, liburua, ipuina...  
Durangon”  
“zorionak eta urteberri on denoi”

# hilabete honetan

**4-6. orr.:**  
zizka-mizkak

**9. orr.:**  
geu elkartea-kale  
izendegia...

**11. orr.:**  
nik uste! “gauekoak”




**12-15. orr.:**  
andoni pz. cuadrado.  
ABK

**17. orr.:**  
abenduan zinea  
euskaraz. bagare

**18-19. orr.:**  
olentzerorako, zer?

**20-21. orr.:**  
agurain. aniturri  
institutua

**23. orr.:**  
joseba olalderen  
argazkiak



**24-25. orr.:**  
lurra ekimena

**27. orr.:**  
literatura eta musika

**28-31. orr.:**  
mendian gora araba!



**33. orr.:**  
zeuk aukeratu!

**34. orr.:**  
txeroki...

Azaleko argazkia: Juan Vallejo Llanos

## termometroa



Zorionak Hala Bediri azaroan zehar buruturiko jardunaldiengatik, Komunikazio eta Askatasunari buruzko 1. Nazioarteko Jardunaldiak, eta hauei amaiera emateko eskainitako GALA BEDIrengatik, "hedabideek eta teknologia berriek gaur egun duten eginkizuna eta horien aplikazio bidezkoago baten alde...".



Mendizorrotzeko futbol-zelaiko errotulazioa ezartzen ibili dira azaroan barrena. "Leihatila" eta "atea" hitzak izan ezik, gainontzeko guztia gaztelania hutsez agertzen da... Zergatik? Futbol zelaia udal jabetza da, ez dezagun ahantzi! Futbol zelaia gasteiztar guztiona da, euskaldunona nahiz erdaldunena!

### NORK KONPONDUKO DU OKERRA? NOIZ?

(Gauzaturiko obrak Udalak, Diputazioak eta Jaurlaritzak ordaindu dituzte)

*Iñigo Kastresana Palacios*



GEU Elkartearen ekimenez egina

**Erredakzioa:** Pedro Asua, 2 - 3.a  
**Tfnoa. eta Faxa:** 945 22 21 53  
**e-mail:** geugaste@grn.es

**Zuzendaria:** Estitxu Breñas Glz. de Zarate.  
**Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.  
**Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron.  
**Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B.  
**Maketa:** DAV '00. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola.  
**Araba Bixotzian:** Mikel Valverde. **Kolaboratzaileak:** Amaia Zaldua, Maider Perez, Iñigo Kastresana eta Iñaki Zorrakin. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)  
**Ale Kopurua:** 2.500 · **LG:** VI-582/92 · **ISSN:** 1133-0988 ·

*Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.*



## zenbakia

8



Geu (Gasteiz) aldizkariak 8 urte bete ditu dagoeneko

**Zorionak guztioi eta urte askotarako!!!**

ikusi-makusi



Aurreko aleko argazkia: Alava Jeneralaren kalea (1906)

Eta hau, zer izan daiteke? Adi, ba, hurrengo aleari!  
"Vitoria-Gasteiz, viejos recuerdos... ...para un tiempo nuevo" liburutik aterata (Caja de Ahorros de Vitoria, Gasteizko Kutxa, 1988).

araba bixotzian Mikel Valverde



Aramaio - Barajuen (azkoagatik) *mikel valverde 2000*

Mikel Valverdek agur esaten digu eta urtarriletik aurrera Agurtzane Villate irudigilea etorriko da gurera



# izenak

## GEU ALDIZKARIAREN 2000. urteko kolaboratzaileak

2000. urtean zehar Geu aldizkarian kolaboratzaile desberdinak izan ditugu. Batzuek gurekin jarraituko dute 2001.ean; beste batzuek, ordea, ez. Halere, hobetu asmoz, kolaborazio hauen inguruko zuen iritzia ezagutu nahi genuke, hauen interesgarritasuna baloratzeko asmoz. Hona hemen zerrenda, eta zerrendaren ondoan, laukitxo bana (kolaborazio bakoitzari puntuazioa jar diezaiozuen, 0tik 10era).



**herririk herri,  
hizkuntzaz hizkuntza**



**zientzia eta teknika,  
zugandik gertu**

**ondare kulturala,  
lkerketa, hedapena...**



**euskara harat honat**

- **Araba Bixotzian.** Arabako ikuspegi desberdinak bertako artisten esku. Mikel Valverde irudigilea izan dugu gurekin aurtan eta agur esaten digu, txanda beste artista bati pasatuz: 2001ean AGURTZANE VILLATE irudigilea arduratuko da atal honetaz, gure herrialdearekiko bere ikuspuntua marraztuz.
- **Elhuyar atala.** Zientzia eta teknika guztion eskura.
- **Begira atala.** Begira talde gasteiztarraren eskutik, gure lurraldea eta herriaren inguruko kultura, historia, artea eta txangoei buruzko informazioa.

- **Euskara harat-honat.** Oraingoan Estatu Batuetatik iritsitako berri bitxiak, Maite Nuñez-Beteluren eskutik. Aurrerago munduko beste edozein herritan bizi den beste euskaldun baten berriak ekarri nahi ditugu gurera...



- **Herririk Herri, hizkuntzaz hizkuntza.** Munduko herri desberdinen inguruko atala, Mendebaldeko Sahara oraingoan, Bahia Mahamad Awah-rekin.
- **EKA.** Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa-k gai desberdinen gainean aholkatzen gaitu.


- **Eneko Etxebarrieta,** "Txapela buruan ibili munduan". 1999ko otsailean txirringaz abiatu zen Eneko bidaia luze bat egitera... Azken hilabete hauetan Txina, Tibet, Mongolia, Korea eta Japonia ibili ditu... Sumendiak, lurrikarak, basamortuak, oihana, mendia... Orain WEB ORRIA du (<http://travelog.collectivart.net/users/Eneko>).

- **Emaize Sexologia elkartearen atala.** Gure gizartean nagusi den sexualitateari buruzko kontzeptutik ihes eginez.
- **Plisti-Plasta atala.** Hau umeen atalean ageri zaigu, KOZKORTUZen. Plisti-Plasta-k, Asti librea euskaraz, hilero umeei tailer desberdinak dakarzkie trebetasuna, irudimena landu eta ondo pasatzeko.

- **Lehiaketak.** Txiki Park Lehiaketa (umeei zuzendua), Entzun Lehiaketa eta Zinema Lehiaketa.
- **ANI.** Arabako Natur Institutua.



**\*BESTETIK ERE, ALDIZKARIAREN GAINEKO ZUEN IRITZIA EZAGUTU NAHI GENUKE:  
-ZER DUZUE GUSTUKO? -ZER EZ DUZUE GUSTUKO? -ZER FALTA DU? -ZER DU SOBERAN?  
-INTERESGARRITASUNA BALORATU  
-KALITATEA BALORATU (ditugun baliabide eta aurrekontua kontuan izaki...)  
-PROPOSAMENAK ETA IRADOKIZUNAK -ETA ABAR...**



**Hontzuria (Tyto alba)**  
Aretxabaletako kanpandorrean (Araba)  
2000/11/11 - ilargi betea

Iñaki Zorrakin



**MIKO**  
izozkiak

**EUSKAL LABELA**  
**LASAGABASTER**  
harategia eta urdaitegia  
Gasteizko  
haragitegirik zaharrena  
Errege atea, 24  
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

**ARTEPAN**  
Artisau  
Okindegia eta  
Goxotegia  
Jesús Guridi kalea, 2  
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ

**LIBURUDENDA**  
**axular**  
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



**MARRAZKIAK · KOADROAK**  
**MOLDURAK**  
**LAMINAK**  
**zurbeltz**  
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**Campusean**  
• liburudenda  
• paperdenda  
• informatika  
**bertan**  
**Arriaga**  
Campus  
Unibertsitate Pabilioia  
Apraiztarrak, 1



Obren egite  
eta zuzentzea  
**ALTUNA** Estudioa  
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"  
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa  
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ  
Tfno./faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

**GASTEIZ**  
**DIBUtec**  
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01  
• Material escolar y de oficina  
• PAPER BIRZIKLATUA  
• Fotokopiak  
kolorez eta Zuri-Beltzean  
Arte ederretarako...  
behar duzun  
guztia  
**PAPERTEGI TEKNIKO A**

**ARANBIZKARRA**  
**ZURE**  
**AUTOESKOLA!**  
Valladolid kalea, 16  
Tfnoa.: 945 28 28 39  
01002 Gasteiz

**MendiaOptikan gero eta errazagoa da gehiago lortzea.**  
Izan ere, erabili eta botatzeko Multilens lentineen 6 hilabeterako\* Packa erosita,  
**14.900 pta.**  
baino balio ez duena, sudadera zoragarri bat oparituko dizugu.  
\*Hilero aldatzeko lente-kaxa bi, 500 ml-ko disoluzio bakarreko bi pote eta lentinezako zorroa.  
**BAUSCH & LOMB**



**MENDIAOPTIKA**  
**MULTIOPTICAS**  
ZERBITZU OPTIKOETAN  
**1a**  
Andre Maria Plaza  
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
GASTEIZ



[www.ikatz.es](http://www.ikatz.es)



# **AURTENGO**

# **GABONETAKO**

# **IRUDIA**

Dendaraba, Dendaraba Digit@l, Gorbea,44

Ecocentro-Legutianoko Atea, Polvorín Viejo,9

J.M. Barandiaran Plaza, 1

**GASTEIZ • BILBAO • BASAURI • DURANGO • EIBAR • ARRASATE • MIRANDA**



Gasteizko Udal Batzak 1999. urteko martxoan onartu zuen kaleen euskal izendegia. Udal Gobernuaren onespena lortu zuen Geu Elkartearen ekimen honen bidez, iazko udaberriaz geroztik Gasteizko kaleen euskarazko izenak ofizialak dira...

## “No existe esta calle”

### ARABAKO POSTA ZERBITZUAREN BARKAMEN ESKATZEA

Huts egitetzat jotzen du Arabako Posta Zerbitzuak karta bat itzuli izana “No existe esta calle” aitzakia erabiliz. Izan ere, iazko eguberrietan Arantzabela ikastolako ume batek etxekoei gutuna igorri zien helbidea euskara hutsez idatzita. Ezusteko galanta jaso zuten handik egun gutxira ikastolan postariak aipatutako gutuna errefusatu eta bueltatu zuelako, azalean zera idatzita: “No existe esta calle”.

GEU Elkarteak onartezina iritzi zion gertaerari eta Arartekoarengana jo zuen kasua salatzeraz. Posta Zerbitzuak estatu mailan kompetentzia duenez, Espainiako Herriaren Defendatzailearengana bideratu zen kexa hau.

Mugica Herzogen erantzuna baina aurtengo urrian etorri da. Enrique Mugicak Posta Zerbitzuarekin harremanetan jarri ostean, besteak beste, Jefaturaren



barkamen eskaera helarazten digu agiri ofizial baten bidez, “huts egitea” onartzen dutelarik.

GEU Elkarteak, bestalde, Posta Zerbitzuko buruarekin (Pascual jaunarekin, alegia) eta Gasteizko postarien sindikatuen koordinatzailearekin berba egin du. Hauek biok ziurtatu digute egun ez dagoela arazorik gutunazalak euskaraz idatzita gutuna normaltasun osoz bere helbidera iristeko (hori bai, mesedez beti posta-kodea argi idazteko gogoratzen dute Pascualek eta Muñozgurenak).

**HORTAZ, LERRO HAUETATIK GEU-K GONBITE EGITEN DIZUE HIRIKO EUSKALTZALEOI KALEEN EUSKAL IZENAK NONAHI ERABILTZERA, BAITA POSTA-ZERBITZUA ERABILTZERA ERE!**

#### HERRIAREN DEFENDATZAILEAREN BITARTEZ HELDUTAKO POSTA ZERBITZUAREN ERANTZUNA:

“Por otra parte se ha observado que la fecha de la citada carta coincide con la campaña de Navidad del pasado año, existiendo la posibilidad de que se padeciera algún otro error involuntario en la devolución de alguna otra carta, por todo lo cual le transmito, a través de esa Institución, comprensión para los empleados de esta Entidad por la deficiencia señalada que coincidió con el notable incremento de correspondencia durante las pasadas Navidades y, en todo caso, disculpas por el incidente.”

#### KULTUR ERROTA-GEU ELKARTEA

Arima Beltza taldearen kontzertua.  
Abenduaren 26an.  
Parral tabernan. 20:30etan

## GEUREKIN MENDIRA ZATOZ GEUREKIN MENDIRA! BERIAIN

Abenduaren 17an

\*Egun osoko irteera

\*Kotxez joango gara

Irteera: Txapela-tabernatik,

goizeko 8:30etan

Itzulera: 17:00etan

Informazio gehiago: 945 26 68 12 (Bego)

# NONBAIT

**Kamisetak:** Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

**Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak**

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7  
Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

## GASTEIZ

ZURE  
EUSKAL  
DENDAK

**UZTINTZA**  
**KERAMIKA TAILERRA**  
**KERAMIKA HERRIKOIA**  
**ETA BERRIA**  
HEDEGILE kalea (Korreria), 120  
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

**JANTZI**  
**ETA**  
**OPARIAK**  
  
Aitzogile kalea (Kutzi), 27  
Tfnoa: 945 26 07 10  
GASTEIZ

**AMILAMIA**  
**arropa eta osagarriak**  
  
Pintore kalea, 17  
tfnoa:  
945 27 40 09  
GASTEIZ

  
**OKOA!**  
arropa eta osagarriak  
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!  
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38

  
**Uetzal**  
Hegoamerikako  
jantzirik ederrenak  
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko artean)  
Tfnoa: 945 25 03 52

**Confeciones**  
**Pinedo**  
**JANTZIAK**  
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ  
Tfnoa.: 945 23 39 90

**RAFA TEJA ATELIER**  
  
"Zetazko eta  
kotoizko ebunak  
eskuz margotuak"  
- ZAPIAK -  
**Arantza Arregui**  
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

**Argazki - Estudioa**  
**Erramun**  
Heraclio Fournier, 23      Askatasun kalea, 5  
Tfnoa: 13 71 02      Tfnoa: 26 19 91  
01006      01004

**vitrales**  
  
**BEIRATE**  
**ESTUDIOA**  
MIKEL  
DELIKA  
Txikita kalea, 1  
Tfno. 945 14 64 10  
GASTEIZ




## GASTEIZKO BATZOKIAK

### ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO    ERDIALDE    LAKUA    ZARAMAGA

Azaroan Mendizorrotzeko polikiroldegian "Gauekoak" izeneko Asteburuko Gauean Aisialdiaz goatzeko kanpainaren aurkezpena ikusteko aukera izan genuen, ondoren Aldabe gizarte-etxera pasatuz eta hilaren 3an amaiera emanaz. Bertan, asteburuetan ongi pasatzeko modu berrien bila, gazteei zuzenduriko eskaintza desberdinak izan dira -kontzertuak, dantza, jolasak, tailerrak, zinema, txapelketak, dj-ak, antzerkia, kirola, mahainguruak eta abar...-

Ekimen honen inguruko iritzia jakin nahian, kalera atera gara. Ea zer dioen jendeak!



- 1) Zer iruditzen zaizu antolatu den "Gauekoak" ekitaldia?
- 2) Zuk zeuk edo ezagutzen duzun norbaitek parte hartu al du?



**Uxue Campo. Ikaslea**

- 1) Ondo iruditzen zait, nahiz eta antolatu diren ekintzak ni baino gazteagoentzat izan.
- 2) Ez naiz joan eta ez dut joan denik ezagutzen.



**Cristina Del Moral. Langilea**

- 1) Ondo. Hala ere, ez dut uste honekin jendeak alde zaharretik irtetzeari utziko dionik.
- 2) Bi alaba gazte ditut eta momentuz ez dira bertan egon.



**Junkal Aranegi. Ikaslea**

- 1) Ideia ona da, baina beste ekintza batzuk ere jarriko nituzke; hitzaldi interesgarriren bat, esaterako.
- 2) Ez, ez naiz joan.



**Nerea Muzas. Langilea**

- 1) Ideia egokia da.
- 2) Ez naiz joan. Dena den, lagunekin komentatu eta joatea gustatuko litzaidake.



**Nahia Lauzurika. Ikaslea**

- 1) Ondo iruditzen zait.
- 2) Bai, parte hartu dut. Ondo dago, baina ez nintzateke astebururo joango, noizbehinka baizik.



**Jose Julian Perez. Abokatua**

- 1) Ondo. Iaz ere antolatu zen eta badirudi arrakasta izan zuela.
- 2) Ez. Gainera, nire gazte garaian ez zen horrelako ekitaldirik egoten.



*Bacalao Giraldo*

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

**ERAMAN ETA JAN**  
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

# ANDONI PEREZ CUADRADO

**ABK-ren  
partaidea**

"Gizartearen  
laguntzarekin  
oso tresna  
baliogarria da  
desobedientzia  
zibila"

Duela lau urte jaio zen Autodeterminazioaren Biltzarrak (ABK) eta ordutik hona ekintza ugari antolatu dituzten arren, Baltasar Garzon, Audentzia Nazionalaren epaileak are eza-gunagoa egin zuen haren lana, urriaren hasieran Patxi Azparren taldeko kidea Joxemi Zumalabe Fundazioa eta Bai Euskal Herriari taldeko beste zortzi kiderekin batera atxilotu zuenean. Hilabete geroago Patxi bera libre utzi zuten, baina Mikel Aznar, Sabino Ormazabal, Carlos Trenor eta Iñaki O'Shea barruan daude oraindik.

Arabian Andoni Perez Cuadrado abertzale historikoa da ABK taldearen buruetako bat. Berak eman digu taldearen ibilbidearen eta etorkizunerako asmoen berri.

**Testua: Leire Lopez de Aberasturi**  
**Argazkiak: Edorta Sanz**

## **- ZENBAT URTE DARAMA ABK-K LANEAN?**

Euskaria bezala hamar urte baino gehiago daramagu. ABK duela lau bat urte sortu zen, Euskaria-k beste hainbat talderengana jo zuenean hasi zen ABKren ibilbidea.

## **- ZER APORTATZEN DIO ABK-K EUSKAL HERRIAREN EGOERARI?**

Autodeterminazioa da gure helburu bakarra. Eta orain horren ezaguna egin den desobedientzia zibilaren estrategia autodeterminazioa lortzeko modu bat da. Euskaria-tik ABKra jauzia ematean sortu zen gehienbat desobedientziaren ideia, taldera sartu ziren kide berriek ideia praktikoagoak ekarri zituztelako. Eta ikusten duzu, ENAk izugarritzko zalaparta sortu du.

## **- ENAREN AUZIAGATIK HAINBAT LAGUN KARTZELARATU DITUZTE.**

Baltasar Garzon epaileari esan behar diogun gauzetariko bat da ea ENAren zein proiekturen kontra ari den, zeren nik dakidala gureaz gain beste lau proiektu baitaude.

ABK-k Bai Euskal Herriari taldeak bultzaturiko ideari atxikimendua eman dio: ENAren aldeko sinadurak bildu eta Udalbiltzari eman, erakunde nazional legal batek dokumentua sor dezan. Proiektu serio eta zehatza, praktikoa da, Udalbiltzarekin harremana duten erakunde guztietan onartuko litzateke-elako.

## **- KODE PENALAREN IKUSPEGITIK DESOBEDIENTZIA ZIBILA DELITUA AL DA?**

Horixe diote orain! PPK gehiengo absolutua lortu eta gero edozer gauza egin dezakeela uste du. Ondorioz, intsumitu eta desobedientzia zibila bultzatzen dugunok delinkuenteak gara. Mundu osoan izen handia duten hainbatek desobedientzia zibilaren bidea jorratu zuten. Gandhi, Mandela, Luther King eta abarrek zer egin zuten? Zilegitasunik gabeko legeei aurre egin.

Horretatik aparte, guk bultzaturiko ekintza guztiek indarrean dagoen legea errespetatzen dutela azpimarratu behar da. Hori da desobedientzia zibilaren ardatza, legeek esandakoari irtenbidea bilatu. ENAren kasuan adibidez: espainiar legeak dioenez, nortasun agiri bat izatea beharrezkoa da, baina ez du



agiri hori derrigor NANA izan behar duenik zehazten.

## **- EPAIKETA PRESTATZEN IBILIKO ZARETE DAGOENEKO.**

Abokatu talde batek bere burua eskaini du epaiketa prestatzeko. Beraiek argi dute salaketa burugabekeria hutsa dela eta inongo frogarik ez dagoela. Baina espainiar Audientzia Nazionala da aurrean daukagun epaitegia eta pausorik txikiena ondo neurtu egin behar dugu.

**“Autodeterminazioa da gure helburu bakarra”**

**“Mundu osoan izen handia duten hainbatek desobedientzia zibilaren bidea jorratu zuten”**



- **Izen-deiturak:** Andoni Perez Cuadrado
- **Adina:** 73 urte
- **Jaioterrria:** Gasteiz • **Lanbidea:** Banketxe batean lan egindakoa da; egun jubilatuta dago.
- **Zaletasunak:** Lan egitea, bere zaletasun nagusia, antza. Gaixoen senideen elkarte batean, ABKn eta EAn aritzen da; Umandi-ren

**Asmo-lztegia argitaratzea lortu bazen, Andoniren ahaleginari esker izan zela aitortu zuen Maria Teresa Urrestarazuk, egilearen arrebak; iritzi artikulua idatzi ohi ditu egu kariatzen argitaratzeko... "Batzuetan zera esaten diet gazteei: Nik egiten dudana lana kontuan hartuta, normala zuek lanik ez izatea!"**

#### - SALAKETA ETAREN AGINDUETARA LAN EGITEA AL DA?

Bai. ABK ETaren aginduetara dagoen talde bat dela dio salaketak hitzez hitz. Nire adinarekin ETakidea naizela esaten ez didate ba!

#### - DESOBEDIENTZIA ZIBILAREN KONTRAKO ERASOA ESTRATEGIA ZABALAGO BATEN BARRUAN DAGOELA USTE AL DUZU?

Estrategia politikoa da. Egun herriak ezin direnez Erdi Aroan bezala konkistatu, Madrilek agindutako estrategia herri hau ahultzea da, barne kontradikzioak eta abertzaleen arteko banaketa sortuz... Eta eraso hori herri hau ahultzeko beste pauso bat da. Ez da erasorik garrantzitsuena, ezta bakarra ere, baina zenbait burugabekeriarentzako abiapuntua izan daiteke.

#### GIZARTEAREN ERANTZUNA

#### - DESOBEDIENTZIA ZIBILAK HORRI GUZTIARI AURRE EGITEKO BALIO AL DU?

Gizarteak ondo erantzuten badu oso tresna baliogarria da desobediencia. Alde horretatik oso baikor gaude. Lanean daramagun urteetan ekintza ugari egin ditugu eta ez dute erantzun handiegirik izan, baina atxiloketen ondorioz jen-

dea iratzarri dela dirudi.

#### - BEHARBADA IDEIA HORIEK GUZTIAK BERRARTZEKO MOMENTU EGOKIA DA HAU.



Horretan ari gara. Agian orain ekintza hauek guziek gizartearen erantzun zabalagoa izango lukete. Horrek bai jarriko zituela besteak urdu-ri.

#### - BERAZ, HURRENGO PAUSOA DESOBEDIENTZIA ZIBILA GIZARTEATZEA AL DA?

Horretan gaude. Agian aldaketaren bat egitea planteatu beharko dugu, baina atzerapausorik ez dugu emango.

#### - IRITZI ARTIKULUAK IDAZTEN DITUZU ASKOTAN. NOLA BALORATZEN DUZU KOMUNIKABIDEEN JOKAERA EUSKAL GATAZKARI DAGOKIONEZ?

Nire lankide ohi batek esaten duen bezala, beste inon gertatzen al da komunikabide guztiek Gobernuaren alde egitea

auzi zehatz batean? Munduko herrialde guztietan Gobernuari egurra ematen dioten bospasei egunkari daude; hemen ezer gutxi dago, orokorrean gu egurtzen gaituzte.

#### - EGOERA HORRETAN POSIBLE AL DA JENDEARENGANA ABKREN ALDARRIKAPENAK IRISTEA?

Jendeak ohituraz edo erosten ditu egunkari ba-

**"Biolentziarik gabe edozer gauza eskatu eta egin daitekeela esaten digute eta gure ekintzak baketsuak dira"**

tzuk, eta horiek iritzia sortzen dute. Hala ere, herri hau oso kritikoa da eta iritzi propioa sortzen dakigu. Bestetik, ahozko komunikazioa ere eraginkorra da, garai gogorraotan funtzionatu zuen.

**- ABK-K GOBERNUAK IDEIAK ETA EZ BIDEAK KRIMINALIZATZEN ARI DIRELA SALATU DU. ADOS AL ZAUDE?**

Abertzaletasuna kriminalizatzen dute, ez ETA. Nik ere kriminalizatzen dut ETA, eta ez daukat hori esateko inolako arazorik. Baina bere benetako kezka herria batu eta erabaki bat har dezala da. Izan ere, biolentziarik gabe edozer gauza eskatu eta egin daitekeela esaten digute eta gure ekintzak baketsuak dira.

**- NOLA BEGIRATZEN DIOZU ETORKIZUNARI?**

Ni baikorra naiz oso. Oraingoa baino askoz ere garai latzagoak bizi izan ditugu eta aurrera egin dugu. Herri kontzientzia dugun bitartean ezingo dute gurekin amaitu. Gainera, herri kontzientzia horrek gehiengoaren babes du, nahiz eta batzuek ezetz esan. Gai horri buruzko eztabaida sakona egitea pendiente dugu eta emaitzak gure aldekoak izango direla ziur naiz.

**- ETA ZEIN DA HORI LORTZEKO BIDEA?**

Informazioa, baina ez gauza erraza, horretarako bitartekorik ez dugulako. Eta, batez ere, duela 40-50 urte genuen gogoan duen belaualdi berri bat sortzea.



## Esperientziak ematen duen lasaitasunarekin...

Atxiloketak eta gero ABK-ko kide gazteen deiak jasotzen ditu Andoni Perez Cuadrado, 73 urteko gasteiztarra, "animoak hartzeko deitzen didatela esaten didate". Izan ere, eta elkarrizketan zehar behin baino gehiagotan esan duenez, "askoz ere garai gogorra" bizi izan ditu Andonik.

1948an atxilotu zuen Francoren polizia Andoni Perez Cuadrado lehen aldiz, eta 1965ean egon zen komisaldegian azkenekoz; tarte horretan beste hamabi aldiz. Horieta batean Meliton Manzanos "famatua" ezagutu zuen: "Donostiako komisaldegian izan zen, 1960an, eta belarria hautsi zidan, baina orduan ere ezin izan nuen gorrotatu, pena ematen zidan".

Berba atseginez eta esperientziaren lasaitasunarekin azken urteetako historiari errepaso egiten dio Andonik, eta frankismoaren garai gorriengan udal hauteskundeetan abertzaleen zerrenda batek irabazi zueneko hura kontatzen du, "batzuek amorrus negar egin zuten gau horretan"; edo Prudentzio Deunaren danborradan lehenengo aldiz ikurrina atera behar zenean frankistak makilak eskuan zituztela jai saboteatzen saiatu zireneko, "hori bai, egurra beraiek jaso zuten",...

Horiek guztiak bizi izan eta gero "sinesten duzun zerbaiten alde ari zarenean, ezin da atzera jo, fisikoki ezinezkoa" dela dio gasteiztarrek konbentziturik. Hori bai, Gasteizko historia gertuena ondo ezagutzen duelako ez da hainbaten "asmo demokratikoez" batera fidatzen: "Francorekin batera frankistak hil zirela sinestarazi nahi digute, baina nik egunero ikusten ditut kalean, manifestazioetan... Eta eskuetan kilokada margo zuria emanda ere eragin duten odola ezin dutela borrotatu esaten diot neure buruari".





# GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK



**Xabier**  
taberna  
musika ona  
eta giro ezin hobea  
Aiztogile kalea (KUTXA), 23

jo eta ke  
**TXAPELARRI**  
TABERNA  
Aiztogile (KUTXA) kalean

**BAR  
KLAKÉ**  
KUTXA, 2  
TFNO.  
143883  
GASTEIZ

**IBAIZAR**  
NEKAZALTVRISMOA  
"Zure ametsak egia  
bihurtzen diren tokia"  
IBAIZAR BASERRIA, 4  
SOJO-ZOLLO · 01478 ARABA  
Tel/Faxa: 945 396 686  
www.euskalanet.net/eskutxi  
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

MERKURIO-KADMIODAN  
%0a

**CEGASA PILAK  
INDARTSUEENAK  
ETA  
EKOLOGISTENAK**

**CEGASA  
INTERNACIONAL  
ALCALINA**

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.  
Artapadura, 11 - Apdo. 355  
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

**ametsak**  
Kañamo Denda - Grow shop  
C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz  
Tel-Fax.: 945 26 46 43

**GEU** etxean jaso nahi dut

**GEU**  
geugaste@grn.es

Izena \_\_\_\_\_  
Abizenak \_\_\_\_\_  
Helbidea \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_  
P.K. Herria Herrialdea \_\_\_\_\_  
Bankua/Kutxa Sukurtsala \_\_\_\_\_  
Kontu zk. (20 dittoak) \_\_\_\_\_

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:  
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ



## BAGARE EUSKALTOKIAK AURKEZTEN DU... ... ZINEMA EUSKARAZ abenduan barrena



Zinea ikusteko gero eta aukera handiagoa daukagu Gasteizen, eta dakizuenez laster zine-areto berriak izango dira gure hirian, denok zinemaz gozatu ahal izateko... Denok? Ez, euskaldunok ez. Euskaldunok ez (omen) dugu pelikulak ikusteko eskubiderik, oso film gutxi bikoizten dira euskaraz eta zer esan Euskal Herrian ekoizten diren filmei buruz... Non dago gure euskara? Auskalo. Bagare Euskal Tokian zenbait hilabete daramagu hutsune hau bete nahian, eta azkenezan lortu egin dugu: Abenduan lau egunetan zehar euskarazko pelikulak ikusi ahal izango ditugu areto komertzial batean, Samaniego

Aretoetan, eta ordutegi egoki batean, arratsaldeko 8etan. Bazen garaia!

Hona hemen gure zinema-menua:

- Azaroaren 30ean laburmetraien gaua izango dugu, euskaraz ekoiztutako hiru film labur eta jatorrizko bertsiotan beste bat: **"Txotx"** eta **"40 ezetz"**, etxean egindako eta arrakasta handiko laburmetraiak; "Sarabe" Bea de la Vega sakanarrak egindakoa -Erdi Aroan kokatutako istorioa-; eta "The Raven", Tinieblas Gonzalez arabarrak egin (ingelesez, euskarazko azpiztituluekin).
- Abenduaren 12an **"Laua-**

**xeta"** filma ikusiko dugu. Euskal Herrian egin, Guda Zibileko garaia eta poeta handi honen azken egunak isladatzen dituen filma dugu hau. Pelikula honekin, Lauaxetari buruzko liburuak atera berriak direnean gainera, aukera paregabea daukagu gure historiari begiradaxo bat emateko.

- Abenduaren 14an, osteguna, **"Murielen ezkontza"** ikusi ahal izango dugu. P. Hogan australiarrak zuzendutako film honek Muriel izeneko pertsonajearen istorioa kontatzen digu: bere familia eta lagunengandik ihesi hiri handira doan neska, bere

ametsa, ezkontzea, betetzeko asmoaz. "Abba" musika talde suediarren "revival-a" ekarri zuen filma da hau.

- Eta bukatzeko, Abenduaren 19an, **"Kementsua"**, Sharon Stone-en film estatubatuarra. "Kementsua" ("Un mundo a su medida") gaixotasun sendaezina duen mutil baten istorioa da, eta bere mugak gainditzeko jartzen duen kemenarena. Laguntasuna goraiatzeko duen istorio hau bihotzean zuzenean sartuko zaizu.

**SARRERA: 300 PTA.**

## AEK AURRERA. EUSKARA AURRERA.

Garzon epaileak azken autoan egindako salaketan inguruan, AEK elkarteak honako hau jakinarazi nahi dio euskal gizarteari:

1. AEK-k ez dauka inolako loturarik ETArekin. AEKren egiteko nagusia EUSKARA irakatsi eta gure hizkuntzaren zabalkundea sustatzea besterik ez da.
2. Autoan agertzen diren 19 lagunen artean batzuk AEK-ko kideak dira, beste batzuk AEK-ko kideak izan dira eta orain ez daude, eta zenbaitek ez du inoiz inolako harremanik izan AEKrekin.
3. AEK-k ez du langilerik izan, harik eta Eusko Jaurlaritzarekin AEK-ko kideen laborantziazio prozesua bideratzeko hitzarmena izenpetu zen arte. Langilerik egon ez bada, nekez egin dakiok iruzurrik Gizarte Segurantzari.
4. Irakaskuntzari loturik dauden jarduerak ez dute, legez, BEZik sortzen.




**GURE DELITU BAKARRA EUSKALTZALE IZATEA DA!**



# ERROTA HORTZ KLINIKA

Julián de Apraiz, 1 - GASTEIZ  
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390  
e-mail: [errotadental@euskalnet.net](mailto:errotadental@euskalnet.net)

# OLENTZERORAKO PROPOSAMENAK



# MUN



Hona hemen Olentzerok oparitzeko egokia izan daitekeen joko interesgarri hau. Aurreko alean txikienei zuzenduriko Kili eta Kolo aurkeztu genizuen KOZKORTUZen; honakoa, berriz, 12-18 urte ingurukoentzat da.

“Gauza txikitxoak dira. Ez dute txirotasunarekin bukatuko, ez gaituzte azpigarapen egoeratik aterako, ez dituzte ekoizpen eta trukaketa bideak sozializatuko, ez diote Ali Babari altxorraren jabetza kenduko. Baina agian, jardutearen poztasuna abiaraziko dute, ekintza bilakatuz. Izan ere, errealitatean eragitea eta, apur bat bederen, aldatzea, errealitatea eraldagarria dela frogatzeko bide bakarra da”.  
Eduardo Galeano

## MUNDUTXO + JOKO +

**MATERIALA:** Gida Didaktikoa (Testuen jolasa, Hegoaldeko irudiak... ..Esperientzia ebaluatu, Gehiago ezagutu, Globingo, Ekin...) eta Jokoa (Mapa, Galderak eta Erantzunak, Fitxak eta dadoa).

**EGILEAK:** C  
Gehiago Batzo

**SALNEURI**  
(Gida Dida

**EZAUGARRI**

- Jolasa Trivia gaiak bestela Gutxiengo Kulturartekotas Desoreka; Osa eta Gerrak eta
- Euskal Herri mailan bizi du ikuspegi krerakargarriago helburu nagusie prozesu bat b horren barruan eraldatzailea
- Jolastu aurr eta “Hegoalde egitea komenig amaituz gero e beharrean g ebaluaketa o “Gehiago ezag gai ezberdina izango gara.

“Mundutxo” lortzeko: Telefonoz: 945 147853 (Josu) - 655 716021 (Angel)

656 776478 (Iñigo) / e-mail-ez: [angelmaza@euskalnet.net](mailto:angelmaza@euskalnet.net)

Postaz: Gasteizko % 0,7 eta Gehiago Batzordea- Itziar Elkarte Etxean - Zalburu kalea z/



# Aguraingo Aniturri Institutua

## euskararen aldeko apustua

Aguraingo Aniturri Ikastetxe publikoa hezkuntza sistemaren eraldaketei egokitzen jakin duen ikastetxea dugu. Lehenengo eta bigarren graduko lanbide heziketa eskaintzen hasi bazen ere, gaur egun DBH eta Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa, Teknologikoa edota Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoak ere bere gain hartzen ditu. Lehenengo epe hartako metal eta jostintza ikasketa horiek irtenbide profesionalaren falta pairatzen hasi zirenean ikastetxea REM erreforman sartu zen buru-belarri. Sasoi horretan ere Nafarroako Sakanako lehen ikasleak iristen hasi zitzaizkion, euskaldunak gehienak, eta beraiei zor zaie D ereduaren hasiera Aniturrin.

Euskaldunen kopuruak gora egiten jarraitzen du, horren islada garbia da A ereduaren desagertzea DBHko lehenengo zikloan.

Gasteiztik eta Nafarroako Sakanatik gutxi batzuk hurbiltzen badira ere, Aniturrik Agurain inguruko, Asparrenako eta Barrundiako ikasleak hartzen ditu batez ere, orotara 12 eta 20 urte bitarteko 268 neska eta mutil.

Lanbide Heziketari dagokionez, Aniturrik maila ertaineko eta goi mailako moduluak eskaintzen ditu, Makinaria eta Linea Eroabideen Instalazio eta Mantenimendu Elektromekanikoa eta Mekanizazio Bidezko Produkzioa, hurrenez hurren. Ikasleen %100ak lanpostua aurkitu izana hezkuntza kalitatearen emaitza da dudarik gabe. Euskara Aniturriko eguneroko bizitzaren ezaugarri nagusia da. HNPekin (Hizkuntza Normalizatorako Plana) erabat identifikatzen delako ikastetxe barruko harreman gehienak euskaraz burutzen dira eta etorkizunean bere hezkuntza eskaintza guztia euskalduna izan dadin lanean dihardute.

Begoña Letona, zuzendaria

**“Hezkuntzaren kalitatea ez da hizkuntzaren arabera neurtzen”**



**- IKASTETXE BEZALA SORTU ZENETIK ALDAKETA NAHIKO EZAGUTU DITU ANITURRIK. DAGOENOKO HEZKUNTZA SISTEMA BERRIAN ERABAT MURGILDUTA ZAUDETELA, ZER MODUZKO EMAITZAK LORTZEN ARI ZARETE?**

Zentruaren martxa ona da. Momentu honetan gure oinarria DBH eta Batxilergoek eratzen dute; hala ere, oraindik Lanbide Heziketa eskaintzen jarraitzen dugu. Gurea oso ikastetxe txikia da, matrikula ez da oso zabala, baina Sakana aldeko ikasleak hartzen jarraitzen dugu eta matrikula mantendu egiten da. Hala ere, Gasteizek ikasle asko eramaten ditu.

**- ZER-NOLAKO AUKERAKETA EGITEN DUTE LAUTADAKO IKASLEEK BEHIN BATXILERGOA BUKATU ONDOREN?**

Denetarik egoten da, batzuek unibertsitaterako bidea jarraitzen dute, beste asko Lanbide Heziketako moduluetan gelditzen dira. Hala ere, horrek ez du esan nahi hemen, Aniturrin, gelditzen direnik, guk bi modulu besterik ez ditugu eskaintzen eta. Gainera, gero eta gehiago nabaritzen ari da Gasteizera joate-

ko joera. Batxilergoa amaitzen dutenean 18 urte dituzte eta hiriak eta herritik ateratzeak asko erakartzen ditu.

**- NOLAKO ABANTAILAK IKUSTEN DITUZTE IKASLEEK MODULUETAN?**

Argi dago: lana azkarrago ematen dutela. Orokorrean, ez hemen bakarrik, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira lan merkatura ahal bezain laster sartzea ahalbidetzen duten ikasketak. Baina aukeraketa ikasle bakoitzak bere buruari jartzen dizkion helburuen arabera izaten da. Unibertsitatearekin ez dago hain argi gerora zertan aritu ahal izango diren; moduluekin, aldiz, lan aukera erreal eta zabala dago.

**GERO ETA NESKA GEHIAGO**

**- ETA, ZEHAZKI ZUEN KASUAN, IKASLEEK IRTENBIDE PROFESIONALA HAIN AZKAR AURKITZEN AL DUTE?**

Bai, lantegietan langile falta dago eta une honetan lanpostu asko dago Lanbide Heziketa ikasten ari diren neska-mutilentzat. Aniturri-

ren kasuan ikasleen %100a lanarekin iriteten da ikastetxetik. Hala ere, gure emaitzak oso onak diren arren, kontuan izan behar da gure matrikula oso murrizta dela Gasteizko ikastetxeen parean.

**- ZUENAK BEZALAKO MODULU TEKNIKOAK MUTILEN GAUZA IZAN DIRA DUELA GUTXI ARTE, HORRELA IZATEN JARRAITZEN AL DU?**

Oraindik modulu hauetan oso gutxi ditugun arren, apurka gero eta neska gehiago animatzen ari dira. Une honetan bi neska ditugu baina aurreko urteetan gehiago, eta emaitzak benetan oso onak izan dira. Orokorrean oso erantzun ona eman dute eta geletan ez da inongo arazorik sekulan sortu eta orain ere oso pozik dabilta. Kasu batzuetan enprekin borroka apur bat egin behar izan dugu neska horiek praktiketarako onar zitzaten, baina hori gero eta gutxiago gertatzen da.

**- ZER ESANGO ZENIEKE HEZKUNTZA EUSKALDUNA MAILA BAXUKOTZAT JOZTEN DUTEN HORIEI?**

Hemen oso argi dugu euskara bultzatu egin behar dela eta euskararen alde hainbat pauso eman behar baldin badira, ba geuk ere emango ditugula. Horrelako adierazpenak lotsagarriak dira, hezkuntza kalitateak ez du hizkuntzarekin zerikusirik. Kalitatea beste parametro batzuen arabera neurtzen da.

**“Kasu batzuetan enprekin borroka apur bat egin behar izan dugu neska horiek praktiketarako onar zitzaten”**

EBA LOPEZ DE MUNAIN, LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEA

**“Gizonezkoak eta emakumezkoak gauza bera egiteko gai gara”**

**- ZERK BULTZATU ZINTUEN MODULU BAT AUKERATZERA?**

Batxilergo bat egiten hasi nintzen baina azkenean modulura jo nuen zerbait praktikoagoa ikasi nahian. Aurretik ere Aniturrin ikasten nuen eta bertan gelditzea erabaki nuen. Oso pozik nago.

**- EUSKARAZ IKASTEN JARRAITZEA GUSTATUKO LITZAIZUKE?**

Bai, gustura egingo nuke, baina tamalez oraindik ez dugu aukerarik... Lautadako gazte gehienok txikitatik ikasi dugu euskara eta, nire ustez, harrera ona izango luke.

**- ZER MODUZ MOLDATZEN ZARA MEKANIKA KONTUETAN?**

Ondo, neskak mutilak bezain ondo moldatzen gara. Piezaren bat egin behar denean egiten dugu eta erratza hartu behar denean ere mutilek badaki-



te nola egiten den. Ez da sexuen arteko bereizketarik egiten gauza bera egiteko gai garelako.

**- ZER EGITEKO ASMOA DUZU MODULUA AMAITZEN DUZUNEAN?**

Lanik aurkitzen badut, ba, beharbada ikasteari utziko diot. Baina, bestalde, goi mailako moduluren bat egitearen ideiak ere erakartzen nau. Biak batera egin ahal izatea gustatuko litzaidake.



**aniturri  
institutua**

**Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloa**

**% 100 kolokazioa  
Europa mailan homologaturiko titulazioa**

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)
- Teknologi Batxilergoa

**Argibideak: ANITURRI B.H.I  
945 30 04 00 - Faxes. 3001 79  
Galtzar, 4 - 01200 Agurain ARABA  
e-mail: 01004aa@hezkuntza.net**



# ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

## GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



## XABIER MIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi  
samurretan espezialduak*

# ITURRIETA

## Sagardotegia



## ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Arraga auzoa.

tfnoa: 945 44 53 85

ARAMAIO

**adaka**  
**madinabeitia**



## Floridako altxorra !

# 35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

Aurreko alean akats tekniko batengatik orrialde honetako argazkiak txarto atera ziren, eta argazkien edertasuna eta kalitatea galdu zen. Joseba Olalderen erakusketak Zalduek BIASTERIRA bidaiatu duenez, hemen duzue berriz ere informazioa eta argazkiak behar bezala aterata.

## **ARGAZKIEN ARTEA-ARTEAREN ARGAZKIAK: "ZIKLOAK-CICLOS" ERAKUSKETA...**

**...Joseba Olalde Azkorreta argazkilariaren eskutik**

- Gasteizen jaioa 1959ko ekainean
- 1982-84: Argazkilaritza ikasketak Londresen (Camdem Institute-ean).
- Lana: Egin eta Euskaldunon Egunkarian azken 12 urteotan. Egun Euskaldunon Egunkarian dago. Hainbat fanzin eta aldizkaritan utzi ditu bere argazkiak: Argia, Resiste, El Tubo, Geu aldizkaria bera...  
Disko azaletan: Hertzainak, 7 Eskale, Mikel



Telleria, Joselu Anaiak...

- Sariak:
  - Vital Kutxa-ren "Araba zure ikuspuntutik": 1. Saria, 1989an.
  - Eusko Jaurlaritzaren Sustatu Sariak: 1. Saria, 1990ean.

### **EZAUGARRIAK:**

"Zikloak" izenburupeko argazki erakusketa honetan izenbururik gabeko 50 argazki daude ikusgai, osotasunean ulertzeko obra baita: aurrerago zoragarria den "ardo" bihurtuko den mahatsondoaren bizi-zikloa eta bilakaeraren ikuspegi fotografikoa eta binakoa, urtea eta lau urtaroen adierazpena mahats eta mahatsondoaren barrena, negutik negura, mahasti elurtutik mahasti elurtura. Ikuspegi dokumentalak birtuala edo abstraktua islatzen du, estetikoki irudi autonomoak lortuz, eta testuinguru dokumentaletik kanpo koloreak, formak, espazio zehatzak ageri dira laukizuzen batean isolaturik, argazkia ideia birtualaren euskarria baita, sasoi honetako errealitate birtuala eta errealitatearen beraren birtualtasunaren artean jolasten delarik argazkilaria, informazio estetikoaren bila, subjektiboa, baina aldi berean erreala eta objektiboa. Manipulaziorik gabe, abstrakzioa nagusi da forma naturalotan.

**TOKIA:** Samaniegotarren Jauregian. BIASTERI

**NOIZ ARTE:** Abenduak 31

### **ORDUTEGIA:**

Astelehen-Ostirala (10:00-14:00 / 16:00 - 18:30) •  
Larunbata (10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00) •  
Igandea (10:00 - 14.00)



# Euskal Herritik

## Euskal hirira?

**Euskal Herriak etorkizunean izango duen lurralde ereduaz ardura duten gizarteko hainbat sektorek LURRA deialdia aurkeztu zuten iragan udaberrian Gasteizen. Orduan, ekologia, kontsumoa, nekazaritza eta bestelako alorretako ehun pertsonak Gure amaren etxea defendatzeko deialdia egin zuten bai eta azpiegitura handietako egitasmoen gauzatzean luzamendu bat eskatzeko sinadura bilketa abian jarri ere. Hile honetan bertan amaitutzat emango dute kanpaina hori, hortaz, balantzea egiteko beta da orain.**

“Lehiakortasun eta modernotasunaren izenean, milaka urte dituen Euskal Herria Euskal Hiri bilakatzen ari dira: gure nortasuna, gure herri izaera kapital espekulatiboaren irabazien menpe jarriko dituen nortasunik gabeko megapolis neoliberal handi batean”. Modu horretan azaltzen du Euskal Herriaren egungo egoera aurtengo udaberrian jaiotako Lurra ekimenak, alegia, gero eta gertuago dagoen errealitate horri aurre egiteko euskal gizarteko hainbat sektore batu, eta Lurra. Gure amaren etxea defendatzeko deialdia sortu zutenek.

Alberto Frias, ekimenaren sustatzaileetako batek azaldu digu

**“Lehiakortasun eta modernotasunaren izenean, milaka urte dituen Euskal Herria Euskal Hiri bilakatzen ari dira”**

azken hilabeteotan Lurrak jorratu dituen hiru arloak zeintzuk diren: “batetik, Euskal Herriak izango duen lurralde ereduaren gaineko gizarte eztabaida eragin nahi dugu; bestetik, azpiegitura handietan (energetikoak eta garraioak), nekazal guneen okupazio egitasmoetan eta merkatal gune handien gauzatzean luzamendua eskatzen dugu; eta azkenik, gizarteari dei egiten diogu hausnarketa egin dezan inposatzen ari zaigun lurralde motak bizitza ereduak dituen eraginez”. Gauzak horrela, sinadura bilketa bati ekin zioten udaberrian erakundeek aipatu egitasmo horien gauzatzean moratoria eskatzeko. Orduz geroztik, zazpi hilabete igaro dira eta Lurraren ahotsa Euskal Herrian entzun ahal izan dugu.

### LURRA, KALEAN

Albertok deialdi honen garrantzia azpimarratu digu, izan ere, “paisajearen aldaketaren atzean aldaketa soziologikoa ezkututzen da, non merkatu ekonomia izenean, gure nortasuna eta izaera izango dira kalte handiena pairatuko dutenak”. Euskal gizarteko hainbat sektore errealitate horretaz jabetu dira eta ekimen honekiko harrera oso positiboa erakutsi dute. Hala ere, gizartearen erantzun positiboaren ondoan ekimen honek hedabideetan edukitako isla oso bestelakoa izan da, “beraiek ez dute gai hau ikutu ere egin nahi izan”, iritzi dio Albertok. Berak esaldi batean ongi asko definitzen digu kontraesan hori: “komunikabideen isiluneak herritarrek izan duten harrera onarekin topo egin du”.

Komunikabideek ekimen honi babes handirik eman ez dioten arren, deialdiaren bultzatzaileak lan dezente egiten ari dira gizarte ezta-






baida hori sortzeko. Horren adibide garbia da azaroan zehar burututako aste monografikoak. Hiru gairen inguruko asteak antolatu zituzten, alegia, azpiegitura handiak, azalera handiko guneak eta nekazal guneen okupazioaren inguruko asteak. Albertok azaltzen digunez, aste monografiko horien xedea aipatu eztabaida horretan gizarte sektore gehien inplikazioa lortzea zen, eta horretarako, Euskal Herriko gizarte agenteen arteko mahainguruak eratu zituzten **“etorkizunean izan nahi duguna erabaki ahal izateko”**. Azken batean, urtea amaitu baino lehen zera erdietsi nahi du Lurrak, Euskal Herriak behar duen eztabaida mahai gainean jartzea.

#### ARABA, PROIEKTU ANITZEN HERRIALDEA

Ez dugu gure herrialdetik irten behar azpiegitura handien egitasmoen eraginaz ohartu ahal izateko. **“Lurrak garrantzi itzela dauka Araban, izan ere, planteatu diren egitasmoen laurden bat Araban gauzatu nahi dira. Martxa honetan ez dugu gure herrialdea ezagutu ere egingo”** dio Albertok.

Proiektu horien eraginez, Arabako Lautadan 100.000 pertsona gehiago bizitzeko lekua egin nahi da; hots, egungo biztanleria %50ean handitu nahi da. AHT, Eibar-Gasteiz autobidea, Foronda aireportuaren bikoizketa, Langraitz eta Legutio arteko “berrikuntza-aren arku”, Gasteiz eta Agurain arteko hiri-jarraipena..., horiek guztiak eta beste asko dira Arabak sufrituko dituen kalteak. Egi-tasmo horiek kontzejuak bezalako ohiko erakundeetan izango dituzten eraginak kaltegarriak izango dira oso: **“proiektu horiek zonalde horien desagerpen ia oso ekarriko dute, bai eta kul-**



**tur eta gizarte antolaketa modu guztien zapalkuntza ere”**, dio Albertok.

Albertok bezala, Lurrak ere halaxe laburbiltzen du beharrezkoa den borroka hori: **“Iusio faltak eta etsi-**

**“Gizarteari dei egiten diogu hausnarketa egin dezan inposatzen ari zaigun lurralde motak bizitza eredian dituen eraginez”**

**penak kalteturiko sormenezko indarrak askatu behar dira, edukitzeko ez baino izateko aukera emango digun errealitate ezberdin bat eskuz esku eraikitzerik izan dezagun. Zeren izaterik badugu, egitasmo neoliberalaren alternatiba, anabasa ez baizik, ispiluaren beste aldeira bizitza hobea badela erakutsiko dugu. Gure amaren etxeak zutik iraun dezan lurra defenda dezagun”**.





## APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

**Eusko Alkartasunak Zorionak eta mende berri on bat opa dizkizue gasteiztar guztiei.**



[www.gazteabertzaleak.com](http://www.gazteabertzaleak.com)



**eusko alkartasuna**

[www.ea-euskadi.com](http://www.ea-euskadi.com)



**GORETTI  
ILEAPAINDEGIA**

Hedegile kalea (KORRE), 14  
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ



**BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73**



Zaldiaran Plaza, 10 · Tfoa.: 945 22 65 64

# TOLERANTZIA

## baliabideak eta erronkak

Gazteak ditu gogoan liburu honek. Gaur egun dugun askatasun-maila lortu izana zein garrantzitsua den ondo baloratzen lagundu nahi du; eta beste alde batetik, etorkizunak dakarzkigun aukeren gainean eztabaidatzeko irizpide neurgarri batzuk jarri beharra ikusarazi nahi du.

Gaztea izan eta, dugun honekin konforme ez, mundu hobeago baten alde borrokan ari direnek hainbat gogoetagai eta eztabaidagai aurkituko dituzte liburu honetan. Irizpide propioak sortzeko moduko hainbat gako emango die material honek. Etorkizuna gazteek eraikitzen dute, eta honelako argitalpenek toleranteak izaten ikas dezaten balio dute, irizpideak sortzen eta beste ikuspuntu batzuk baloratzen ikas dezaten balio dute. Tolerantzia, izan ere, beste era batekoekin bizitzeko gaitasuna baita, eta hori ikasi egin daiteke, historia, literatura edo matematikak bezalaxe.

Egilea ziur dago -eta hauxe du bere ikuspuntua- gizartea zuzena izango bada, tolerantziaren, elkartasunaren eta partehartzearen bidetik definitu behar dela. Tolerantziaren eta bakearen alde egiteko, denok dugu zera ikasia eta non saiatur.



### Egilea:

Fernando Sanchez Aranaz (Araba)

### Argitaratzailea:

Jean François Sauré (Legutio)

2000ko azaroa

## geu aldizkariak gomendatzen du...

## musika

# Habiak

## Anari

ESAN OZENKI RECORDS

Anariren bigarren diskoa dugu honakoa. Berak idatzitako letrak (bi kanta izan ezik, gainontzekoak berak izkiriatuak dira) aurreko diskokoa baino ahots sako-nago batez bustitzen ditu, bere gitarraz eta berak ere laztandutako pianoaren soinuaz indartuta. Anarik, bere taldeak eta kolaboratzaileek (Kaki, Ruper, Petti...) habietatik...aztarnetara, aztarnetatik...zubietara, zubietatik...itsas-erauntsietara garamatzate... Lan dotorea benetan Anarik dakarkiguna!

E.B.Z.

"Desertu erdian bale eskeletu bat da  
Behin itsasoa han izan zeneko aztarna bakarra  
Mendi altuan karakola bat da  
Behin itsasoa han izan zeneko aztarna bakarra  
Etxe osoan usain antzeko bat da  
Behin hemen izan zineneko aztarna bakarra"  
(Geuk piztutako suak)



Elkarlanean

**ITOIZ (1978-1988) izeneko packean,**  
Itoiz taldearen historia osoa,  
eta Nobela Beltza, berria ez bada ere  
ineditua dugun kanta.

**BETAGARRI taldearen azkena: Freaky Festa.**  
Geu Aldizkariak 10 CD single banatzen ditu.  
Deitzen duzuen lehen 10 harpidedunen artean.



Esan Ozenki

# Mendian gora arabarrak

8a+, 6b+, 8c, 9a... “Eskalatzen ez baduzu zaila suerta daiteke ulertzea” esan zidaten, zenbaki saltsa horretan mendian izan ezik matematikako amesgaizto batean galduta nengola pentsatzen nuen-eta. Eskerrak Iker eta Enekok pazientziaz eta argi eta garbi zifra hauen nondik-norakoak azaldu zizkidaten: zailtasun maila kontrolatzen duten heltze lekuak dira, alegia. “Eskala denon artean jartzen da. Mendian bideak ireki, graduazioa egin eta behin gauzatu ondoren mendizaleen artean hartutako erabakiak eztabaiatzen dira”, diote Pou anaiek, “horregatik kirolen artean mendia egitea demokratikoena dela esan daiteke”. Mendia dute bizitza gazte hauek: Adolfo, Irati, Zerain, Vallejo, Eduardo eta Pou anaiak Euskal Herrian, munduko txoko ezberdinetan bezala, aski ezagunak diren mendizale arabar bikainak ditugu, ilusioz eta gogoz bideari ekiten dioten horietakoak. Aurrera ba lagunak!

## ENEKO ETA IKER POU “Kirolen artean Mendia demokratikoena da”

Euskal Herrian hasi, Estatura joan, Europatik pasa eta gainontzeko kontinenteak ere bisitatu dituzte Pou anaiek denbora laburrean; izan ere, gasteiztar hauek gazteak izan arren curriculum liluragarria dute. Eneko eta Iker eskalatzan 17 eta 15 urterekin, hurrenez-hurren, hasi baziren ere orain arte egindako ibilbidean pentsatzea zaila suertatzen zaie. Komunikabideak beraien presentziak jabetu eta Enekok iaz Nepalera egindako espedizioan izen ona erdietsi bazuen, Ikerrek aurten lortutako Action Direct\* (Alemania) bide gogorra egin ondoren eskuratu du nazioarteko eskerrona.



Bikote honen izena gure ahotan bada ere, besteak beste, abuztuaren 4an Labana Handira Eduardo Martinez Loberarekin batera egindako espedizioagatik da. Baina eguraldi kaxkarrak kanpamendu basean 14 egunez egotera behartu zituen eta horrek eskalatzeko aukerak murriztu. Gauzak horrela, 40 egun etxetik kanpo pasa ondoren eta gailurretik gutxi gora-behera 250 metrora geldituz Euskal Herrira bueltatu ziren. “Pena handiarekin bueltatu ginen”, azaltzen du Enekok, “baina hala eta guztiz ere, momentuz itzultzeko asmorik ez dugu; izan ere, eskuetan izan dituzun horietara bueltatzea oso zaila suertatzen da beti, eta munduan leku asko dago oraindik ikusteko”.

(\*)Mundu osoan hiru eskalatzailek baino ez dute hau lortu: Wolfgang Gullich, Alex Adler eta Iker Pou.



- **Jaiotze-data:** Eneko, 1974-3-17; Iker, 1977-2-5.
- **Jaioterrria:** Gasteiz.
- **Egindako ikasketak:** Enekok, heziketa fisikoa, eta Ikerrek, Batxilergoa.
- **Lanbidea:** Mendizaleak (Ikerrek rocódromoetan lan egiten du eta Eneko, neguan eski irakasle aritzeaz gain, rocódromoetan eta proiektzioak ematen ere ibiltzen da, betiere kirolaren munduan murgilduta).
- **Zaletasunak:** Ikerrek, eskalatzeko eta Enekok, kirolaz gain, irakurtzea, zinemara joatea, eta noizean behin “martxaz” irtetzea du atsegin.
- **Mendizale baten izena:** Alex Juver alemaniarra, Ikerrena; Enekorena, berriz, Dominic Julien, izotz eskaladan aritzen den frantziarra.



- **Jaiotze-data:** 1961-8-20.
- **Jaioterrria:** Gasteiz.
- **Ikasketak:** Ikasketak bukatu ez arren, Lanbide Heziketan eta UNED-en filologia ikasten aritu zen.
- **Lanbidea:** Garraioetako txoferra.
- **Zaletasunak:** Mendiaz gain, natura eta kirolarekin zerikusirik duen edozer egitea.
- **Mendizale baten izena:** Messmer.

## ALBERTO ZERAIN “Bizitzaren aurrean duzun jarrerak mendian eragina dauka”

Naturarekiko elkarbizitza maite du Zerainek. 16-17 urterekin adiskidetu zen Alberto mendiarekin: “Gaztetan etxetik kanpo ateratze-ko gogoz astebururo mendira joaten ginen, hiriburuan baino hobeto pasatzen baikenuen”. Eta orduetik horretan aritzen da ahal duen guztietan, “baina bi semeren aita izanda ezin diozu nahi beste dedikazio eskaini mendiari, eta beraz, sakontzerik ez dago”, azaltzen du,



“niri betidanik zortzimilak egitea gustatu zait, horregatik, aukera dudanean, bi urtetan behin behintzat, alde egiten dut”. Izan ere, bere izena 1993. urtean Everestera igo zenean hedatu zen, “arabarren artean lehena nintzen eta horrek nahi gabe ezagutarazi ninduen”.

Erronka berrien aurrean maila on bat izateko Zerainek prestakuntza fisikoa oinarritzeko kontsideratzen badu ere norberak bizitzarekiko duen jarrera ere ezinbestekotzat hartzen du: “Ez dira bakarrik entrenamenduak, baizik eta bizitzaren aurrean jarrera ona azaltzea, hau ere inportantea da; hots, bien arteko oreka bilatu behar da. Honek mendian islada dauka”. Horregatik, besteak beste, Albertok idaztea ere badu gustuko; gauzak horrela, 1998an Aramaioko Sagitario Saria –Bidaiari Handien Literatur lehiaketa- gazeratzerako modalitatean irabazi zuen.

Zeraini proiektu berriari buruz galdetzerakoan, a zelako harridura aurpegia jarri duen!, ezustean harrapatu baitu guk berau ezagutzea... Azkenean kostata ere aitortzen du: “Everestera oxigeno gabe igo nahi nuke, baina oraindik ez dago ezer zehatzik”.



## ADOLFO MADINABEITIA “Txikitatik mendiak zoratzzen ninduen”

Leze eta Aratz, besteak beste, izan ziren mendiz inguratua jaio zen ume baten amets tinkoa...  
“Agurainen bizi nintzen bezalakoan egon naiz mendiarekin harremanetan, jendea eskalatzen



ikusten nuen egunero, eta gauzak horrela, 15 urterekin nik neuk ere horri ekin nion, txikitatik mendiak zoratu bainau”. Adolfo Madinabeitiaren izena goi-mendiko eskalada askearekin estu-estuki erlazionatua dago: 1986. urtean Yosemiteara joan eta ordutik arabar hau Karakorum, Everest, Capitán, Himalaya eta beste hainbeste menditan izan dugu, azken abenturan Amin Brakk\*-en, Pakistanen, pareta batetik-goreneko zailtasuneko- 31 egun eskegita egon delarik. Adolfo berak dioenez, “burugogorra izan behar duzu eskalada mota hau egiteko”. Inoiz prestakuntza psikologikoarekin zerikusia duen gaixotasuna antze-man daiteke, mal de rimaya deritzona (erronkaren aurrean zaudeneko atzera botatzeak eta justifikazioak...), “batzuetan hor goian zaudenean makina bat bezala zoaz guztiz “entxufatua” eta bestetan, berriz, adibidez Pakistanen eguraldi txarra egin zue-nean bezala, edozer gauza pentsatzeko astirik duzu eta hobe da ahaztea eta zu zeu ez tortu-ratzea”. Madinabeitiak aitortzen duenez, “mendiagatik dudak maitasunak horrelako gauzak egitera eramaten nau”.



(\*)Amin Brakk (5.850 m.) munduko pareta babesgabe eta zailenetakoa da.

## EDUARDO MARTINEZ LOBERA “Gasteizen dauden men- dizaleak hiri handi bate- nak balira oihartzun han- diagoa izango lukete”



- **Jaiotze-data:** 1965-4-17. • **Jaioterrria:** Gasteiz.
- **Ikasketak:** Basoetan teknikari espezialista eta dentista (hortz- protes teknikaria).
- **Lanbidea:** Dentista bada ere mendiarekin gero eta gehiago aldizkatzen du lanbidea.
- **Zaletasunak:** Mendiaz gain, eski travesia eta eskalada izotzean.
- **Mendizale baten izena:** Güllich, Kukuska.



Zortzi urterekin jada ikastetxe nahiz osabarekin mendira txangoak egiten zituen Eduardo Martinez Loberak. Baina 1989. urtean Gran Capitán igotzeak ospeko mendizaleen izenen artean kokatu zuen berea. Hortik aurrera urtean behin bere izena komunikabideetara igortzen duen ekintza egiten du: 1991ean EEBB-etako hainbat estatutatik, 92an Mustabata, 94an Karakorum, 96an Perun (Cordillera Blanca), 97an Bolivian, 98an Kanadan lehenengoz, 99an Yosemite eta aurten Kanadara berriro ere, Labana Handia -“talde mailan egin dudak espedizioetatik onenenetakoa”- lortzeko asmoz. Martinez Loberak oso positiboki baloratu du Pou anaiekin batera egindako bidaia: “Ezagutzen nituen arren, ez da gauza bera bi egun edota hile oso bat egotea elkarrekin bizitzen etxetik urrun eta, gainera, egin zigun eguraldiarekin; hala eta guztiz ere, oso esperientzia polita izan zen”. Orain bere egitasmoen artean Enekorekin prestatzen diharduen espedizio berri bat dago.

## ANEKDOTA-SAL TSA

Bizi izandako bitxikerien artean bat kontatzea eskatu diegu gure lagunei, eta hona hemen inoiz barrea, harridura, ikara edota poztasuna sortarazi dieten beren mendizale bizitzaren kontutxoak:

**Iker eta Eneko Pou.** “Labana Handiko espedizioan bidaia oso luzea izan zen, hegazkinez Kalgarin-era heldu eta 2.500 kilometro falta ziren oraindik

gure helmugara iristeko. Gainera, herri batetik bestera igual 150 bat kilometro dago, horregatik errepideko tabernatxo batean gelditu ginen zerbait hartzera: bertan bikote bat zegoen bere alabatxo-arekin eta hara non amak neskakila deitzaerakoan Amaia izena zuela. Oso bitxia izan zen, han erdi galduak eta izen euskaldun bat entzutea”.

**Alberto Zerain.** “Peruko mendietan nengoen 30 urte bete nituen egunean, eta jaisten ari ginela istripu bat izan

zuen pertsona bati laguntzen ari ginen non beste batek -nire gainetik pasatu nahian- pioletarekin sudurrean eman zidan, beraz, pioletada bat jaso nuen opari bezala nire urtebetetzearen egunean”.

**Adolfo Madinabeitia.** “1996an lehenengoz Amin Brakk-en, Pakistanen, egon ginenean oso eguraldi txarra izan zen eta bertan 16 egun egon ondoren ahal bezala atera ginen handik, baina jaitsieran izugarritzko dirutza suposatzen

## JUAN VALLEJO



# “Himalaya bezalako mendiak igotzen ez badituzu badirudi ez duzula ezer egiten”

Juan Vallejo mendizale ospetsua dugu berak horrela uste ez badu ere. Hemengo eskoletan hasi -Alpeak eta Pirinioak- eta 1993ko espedizioan Everestera igo zenetik bere mendiko ekintzak nabariak izan dira, hala nola, Makalu, Sishaparna, Annapurna, Yosemite, Kanada..., besteak beste. Gasteiztarraren iritziz, “mendi altu edo famatu bat egiten ez duzun bitartean ez

zara inor; behin egiten duzula, ordea, jendeak zure ibilbidea ezagutzen du”. Txirrindularitza, mendiko eskia eta korrika eginez lantzen du Juanek bere egoera fisikoa; psikologikoa, aldiz, “daukazu edo ez daukazu” dio, “borondatez indartsu izan behar duzu”.

Vallejoren azken ekintza Al Filo de lo Imposible telebista saioarekin grabatutako Groenlandiatik eginiko zeharkaldia da. “Juanito Oiarzabalekin batera buruturiko ekintza dugu hau, orain arte egingakoarekin zerikusirik ez daukana”. Bere egitasmo hurbilari dagokionez, Vallejo eta Oiarzabal Karakorumeko iparreko aurpegia igotzeko elkarren arteko lanean ari dira, ondoren eta hortik hasita kontinenteetako zazpi tontorrak egiteko asmoa ere buruan darabil-tela.



- **Jaiotze-data:** 1971-3-29.
- **Jatorria:** Gasteiz.
- **Ikasketak:** Geologiarekin hasi, gero Geografia eta Historia-ra pasa, baina lanean hasi eta ikasketak utzi zituen.
- **Lanbidea:** Suhiltzailea.
- **Zaletasuna:** Oro har mendian egin daitekeen edozein ekintza.
- **Mendizale baten izena:** Angel Rosen.

## IRATI ANDA

# “Gizonezkoen gizartea kiroletan ere islatzen da”



Bere nebak bultzatua zortzi urte besterik ez zituenean hasi zen Irati Anda gaztea eskaladan. Orduetik azkar igo da Irati, izan ere, oraindik hemezortzi urte bete ez dituen neska honek Espainiako Txapeldunaren titulua eskuratu du bitan. “Iaz 18 urtez azpikoetan, eta aurten maila aldatu dudan arren txapeldun izan naiz berriro”. Iratik eskaladatik bizi nahi ez badu ere, materiala erosteko dirua irabaztea gustatuko litzaioke, “kirol hau ez baita merkea”.

Gasteizko teknifikazio zentro batean dabil Irati eta prestakuntza fisikoa gogoz lantzen du egunero. Psikologikoari dagokionez, “lagunen artean giro ona eta pozik egotea” beharrezkoa dela aipatzen du, eta hala eta guztiz ere, “eskalatzaile guztiok beti ditugu gure ‘bajoi’ psikologikoak”. Izan ere, Iratik berak kontatzen duenez, une batean “nire buruari gehiegi eskatu nion eta ‘sobre-entrenamendua’ delakoa egin nuen; gauzak horrela, gradu txikikoetan ere gaizki ibiltzen nintzen”. Orain motibazio bila ahal duen heinean asteburuetan adiskideekin ihesalditxoak egiten ditu: “mendia zer den ez dago hitzekin azaltzerik”. Iratiren aburuz, “kirola ere gizartearen isla da, eta gizartea gizonezkoen gizartea da; orain, berriz, emakumeok gure lekua hartzen hasi gara”.



- **Jaiotze-data:** 1982-12-25.
- **Jatorria:** Gasteiz.
- **Ikasketak:** Batxilergoa egiten ari da.
- **Zaletasunak:** Eskalada, bertsolaritza, antzeztea eta idaztea.
- **Mendizale baten izena:** Eneko Pou.

zuen petate bat galtzeaz gain euri bortitzak mendi magalean zegoen herria erabat suntsitu zuen. Joan naizen hurrengoetan herria berritzen ari ziren eta aurten guztiz amaitua zegoenean eguraldi txarrak berriro triskatu du. Gauzak horrela, hango herritarrek -gu haraino joan eta mendian eskegita ego-teagatik zoro gaudela pentsatzeaz gain-gutun bat idatzi zioten laguntza eskatuz Estatuko Gobernuari eta guri eman ziguten, guk eskura emateko aukera bagenu bezala”.

**Eduardo Martínez Lobera.** “Iaz Juan Vallejorekin Capitán-en -EEBB- nengoan eta gailurrean gogoratu nuen data horretan hamar urte betetzen zirela mendi hura lehenengoz igo nuela”.

**Juan Vallejo.** “Aurten Groenlandiatik egingako trabesian geratu zen hurrengo. Trineoz bidaiatzen geundela, Juanito Oiarzabal gidari, halako batean biratzerakoan trineotik kanpo bota ninduen; Juanito ez zen konturatu eta aurrera jarraitu zuen... Eskerrak beste

hirugarren batek ere gurekin bidaiatzen zuen eta ikusi ninduen!”.

**Irati Anda.** “Behin eskalatzen ari ginela lagun baten aseguruia ez zen guztiz itxi eta hainbat metro behera erori zen, susto handia hartu genuen. Beste behin, berriz, mendi batean eskalatzen geundela alemaniar batzuk harrিতuta gelditu ziren guri begira inoiz neska bat eskalatzen ikusi izan ez balute bezala”.

# IRUSTA

**poteo eta pintxoak** **TABERNA**

**ESPEZIALITATEA:**

**Patata tortila • Otartekoak**

Mateo Moraza 19  
Tfnoa: 945 23 19 33  
**GASTEIZ**

# Ka La MUA TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde  
Margolaria,5

Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16  
01008 Vitoria-Gasteiz



## LA RIOJANA jatetxea

*on egin!* bokatak,  
pintxoak,  
kazulatzkoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39



## JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26  
tfnoa: 945 28 81 47  
**GASTEIZ**



Errege atea, 9 • GASTEIZ  
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

## XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2  
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

## PLATER MIMATUAK...

**EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA  
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!**



Unai eta Patxi Fernandez de Retana  
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ  
Telefona: 945 26 38 74



## HEGOALDE Euskaltegia



**Matrikula zaituz !!**

**Jose Lejarreta 9 behea**  
Tfnoa 945 28 41 96  
**01003 GASTEIZ**

## UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65  
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33  
**GASTEIZ**



**KulturCampus**  
Gasteiz



Kultur Hedakuntza

**MUSIKA. TEATROA.**  
**Euskal Herriko Unibertsitatea**

Abenduak 13: **FRANKI STEIN**. Pikor Teatro.  
Abenduak 19: **EURITAN BLAI**. Izen berria  
euskal-folk musikari bikaintzat.

\*Ekitaldi hauek Unibertsitate-Pabilioian  
burutuko dira 12.15etan.

**ERAKUSKETAK**

- **GERARDO ARMESTO**. 00-11-27/00-12-21

ETA GAINERA...:

- Literatur hitzaldi eta aurkezpenak
- ORHUM zine kluba
- \*Sarrera dohainik ekitaldi guztietan

**ADI PARRAL TABERNAREN**

**5. URTEURRENARI... ZORIONAK!!!**  
**JAITXOAZ GAIN...**

ABENDUAK 4. **DETRITUS TEATRUS** (GAS-  
TEIZ): gü-gü txupete

ABENDUAK 5.  
**ORTOPHONK**

ABENDUAK 12.  
**JORGE SANCHEZ**

bakarlaria. "Nueva  
troba cubana"

ABENDUAK 19. **POE-  
SIA** Errezitaldia

ABENDUAK 26. **ARIMA BELTZA** "GEU  
Kultur Errota".



**Bagare Euskaltokiaren  
eskutik...**



\*Geu aldizkariak  
gomendatua

**ZINEMALDIA**. Hile honetan Guridi Zineman  
euskarazko zikloa. Adi egon!

Eta...

**Euskal Herria ezagutu:**

Nafarroako 6. Merindatera txangoa  
(Behenafarroa). Hilaren 6tik 10era.

Informazioa: 945 25 10 84

**ARABAR IKASLEENTZAKO FILME  
LABURREN GIDOIEN BIGARREN LEHIAKETA**

Antolatzailea: S.A.M.A.

Elkartea

DBHko arabar ikasleei  
zuzendua, euskaraz zein  
gaztelaniaz

Epea: abenduak 11

Helbidea: Pedro Asua 2-3.  
solairua



**ARGIA aldizkaria-  
ren eskutik...**

**EGUTEGIA 2001**

(Euskal Herriko almanaka  
ezaguna -oraingoan poltsiko  
egutegiarekin batera-) eta  
**MANTXUT?** Asisko

Urmenetaren euskarazko  
lokuzio, espresio eta esamol-  
deen bilduma ("Zazpiak  
Batman" kolektiboa)

Informazioa: 943 37 15 45

e-posta: [denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)



**JOSEBA ESTARTA. Eskulturak.**  
**Erakusketa**

Brontzea, egurra, burdina, kuprea eta harria.

Arabako teknologi elkartegia. (Miñao. Araba)

2001. urteko urtarrilaren 12ra arte.

Astelehen-Ostirala, goizeko 9etatik 20:00etara

Informazioa: 945 29 69 00





Isidora  
**AGUIRRE**

Eduardo  
**GALEANO**

Josu  
**LANDA**




# BILDUMA BERRIA

Hitz ibiltariak

Zarandona

**KORTAZAR**

## Nobedadeak



**Bagare**  
EUSKAL TOKIA



**BAGARE EUSKAL TOKIAK AURKEZTEN DU:**  
SAMANIEGO 4 zinema aretoetan

# ZINEMA EUSKARAZ

**azaroaren 30, osteguna**

**arratsaldeko 8etan**

laburmetraien gaua

**THE RAVEN**

(Tinieblas Gonzalez)

Jatorrizko Bertsioa, Azpitu

**TXOTX eta 40 EZETZ**

(Asier altuna eta Telmo Esnal)

**SARABE**

(Bea de la Vega)

**abenduaren 12, asteartea**

**arratsaldeko 8etan**

**L A U A X E T A**

(Jose A. Zorrilla / Xabier Elorriagakin)

**abenduaren 14, osteguna**

**arratsaldeko 8etan**

**M U R I E L E N**

**E S K O N T Z A**

(P. J. Hogan)

**abenduaren 19, asteartea**

**arratsaldeko 8etan**

**KEMENTSUA**

(Peter Chelson / Sharon Stonekin)

**Bagare**  
EUSKAL TOKIA

**BEBOLBY**  
ESTIMORSUM

Arabako  
Foru Aldundia



Diputación  
Foral de Alava

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa